



Bizkaiko Hezkuntza Sailburua Andoni Anasagasti

EAEko irakaskuntza pribatuan lan egiten duten ehunka eta ehunka langileren izenean jartzen gara zurekin harremanetan. Araututako irakaskuntza pribatuan irakasleak ez diren langileak, batez ere, zerbitzuetaoak, administraziokoak, irakasleak ez diren tituludunak eta Haur Hezkuntzako lehen ziklokoak (0-3) jasaten ari diren egoeraren berri eman nahi genizuke idazki honen bidez.

2005-2006 ikasturtean 294 ikastetxe kontzertatu zeuden, Haur Hezkuntzako bigarren ziklotik hasi eta derrigorrezkoaren ondorengo hezkuntzarainoko (batxilergoa eta lanbide heziketa) hezkuntza eskaintzen zutenak. Titulartasun pribatuko ikastetxeak dira, honako hauei atxikitakoak: *Kristau Eskolak* (148 ikastetxe eta ikasleen %27,2), *Partaide* (59 ikastetxe eta matrikulen %11), *AICE* (45 ikastetxe eta %5,9), beste kooperatiba batzuk (23 ikastetxe eta %4,5) eta Bizkaiko Elizbarrutiko Ikastetxeak (15 ikastetxe eta matrikulen %2,4).

Ikastetxe hauetan guztietan, irakasleez gain, administrazioko eta hainbat zerbitzutako (garbiketa, sukaldaritza, garraioa, mantentze lanak...) langileek egiten dute lan eta baita irakasleak ez diren tituludunek ere (gizarte langileak, psikologoak, hezkuntza laguntzako adituak...), eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko langileak (Maisu-maistrak, teknikariak, laguntzaileak). Guztiek curriculumaz gaindiko eremuetan hainbat hezkuntza proiektu aurrera ateratzen laguntzen dute modu eraginkorrean.

1992ko abenduaren 23an, Hezkuntza Sailak eta hezkuntza pribatu kontzertatuaren arloko erakunde patronalek nahiz sindikalek (sindikatu hau barne) *Soldatak parekatzeko hitzarmena* izenpetu zuten. Akordio hartan ikastetxe pribatu kontzertatuetao langileen soldatak pixkanaka sektore publikoko langileen soldatekin parekatzeko prozesua adostu zen. Hitzarmenak irakasleak soilik hartu zituen barne, beraz, administrazioko eta zerbitzuetao langileak eta irakasleak ez diren tituludunak soldata parekidetzetik kanpo geratu ziren.

1993ko azaroaren 2an, EHAAn urriaren 19ko 289/1993 Dekretua argitaratu zen, 1994ko urtarrilaren 1etik aurrera EAEko ikastetxe pribatu kontzertatuetao ordainketa eskuordetuen sistema arautzen zuena. 2. artikuluan, aipatutako sistema irakaskuntza pribatuan lan egiten zuten eta lanaldi osoa nahiz partziala zuten araututako irakaskuntzako irakasleei aplikatuko zitzaiela adierazi zen. Ordainketa eskuordetutik kanpo geratu ziren Heziketa Bereziko ikastetxeetao Eskola Irekietako irakasleak eta irakasleak ez ziren langile guztiak.

Ordainketa eskuordetutik kanpo geratu ziren baita ere Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko (0-3 urte) langileak: irakasleak, teknikariak eta laguntzaileak. Langile hauen egoera oso anitza da soldatei dagokienez. Estatuko hitzarmenean eta ikastolenean irakasletzat hartzen dira, baina beste batzuetan, esate baterako Gizarte-ekimeneko Ikastetxeen Hitzarmenean, ez dira irakasletzat hartzen. Horren ondorioz, ikastetxe publikoetan lan bera egiten duten langileekin konparatuta, oso soldata txikiak dituzte.

Horren guztiaren ondorioz, azken 12 urteotan, irakasleen soldatak hazi egin dira eta irakaskuntza publikoko pareko kategorietako soldatekiko %90eko baino gehiagoko parekidetzea lortu dute –DBHko I. mailan eskolak ematen dituzten lizentziadunen kasuan izan ezik–. 2006. urtetik aurrera, Hezkuntza Laguntzako Adituen (irakasleak ez diren tituludun langileak) soldatak ere nabarmenki hazi ziren kontrataziarao diru-laguntzen finantzaketa

hobetu zelako eta Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko irakasleen egoera ere hobetu egin zen beren soldata (baina ez lanaldia) bigarren zikloko irakasleen soldatarekin parekatu zelako.

Baina urte hauetan guztietan zehar administrazio eta zerbitzuetako langileen egoerak bidegabea izaten jarraitu du. Ikastetxeek zerbitzu mota hauek privatizatzeko joera dute, ez daude eskuordetutako ordainketaren barne eta soldatak negoziatio-mahai kolektiboan erabakitzen dira eta ikastetxeek jasotzen duten finantzazioak baldintzatzen ditu. Kontzertatutako ikasgela bakoitzaren finantzazio modulu-ekonomiakoan kontuan hartzen diren lau kontzeptuetako bat irakasleak ez diren langileen gastua da. Beste hiru kontzeptuak irakasleak, funtzionamendu-mantentze gastuak eta inbertsio errealeen birjarpena dira. Irakasleak ez diren langileentzako dagoen diru kopurua urria da, batez ere, irakasleen gastuekin konparatuta, izan ere, moduluentako diru kopururik handiena horretarako erabiltzen da: %85,7 Haur Hezkuntzan, %84,1 Lehen Hezkuntzan, %86,6 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailan, %87,8 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailan eta %87,4 Batxilergoan. Irakasleak ez diren langileen gastuak, berriz, %5,6 besterik ez dira Haur Hezkuntzan, %5,5 Lehen Hezkuntzan, %4,3 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailan, %3,5 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailan eta %3,4 Batxilergoan. Beraz, finantzazio modulua ezartzen duenez gero, administrazioa da langileen gehieneko soldata ezartzen duena. Aipatutakoa azken 15 urteotan bizi izan den egoera da. Esate baterako, 2007. urtean, moduluko kontzeptu hori %2,7 handitu zen aurreko urtekoarekin konparatuz gero. Aurten %3ko igoera aurreikusi dute, dakigunean urteko inflazioa %4,3an dagoela. Ulertezina izateaz gain, Hezkuntza Sailaren jarrerak baldintzatuko du haien lansarien igoera eskasa.

Hori guztia dela eta, Hezkuntza Sailari egoera zeinen bidegabea den ohartzeko eta egoera konpontzeko konpromisoa hartu dezala eskatzen diogu. Zehazki

HONAKO HAU ESKATZEN DUGU

- 1.- Aurten, 2008.urtean bertan, irakaskuntza zentro pribatu arautuetan lan egiten duten eta irakasleak ez diren langile guztien soldatak parekatzeko prozesua abian jar dezala, 3 urteren buruan irakaskuntza publikoan lanpostu berberak dituzten langileen soldatekin parekatu izan daitezen.
- 2.- Hezkuntza Sailak irakaskuntza arautuko ikastetxe kontzertatuetako langile guztientzat, irakasleentzat nahiz irakasle ez direnentzat, ezarri dezala eskuordetutako ordainketa formula 2008-2009 ikasturtetik aurrera.
- 3.- Hezkuntza Sailak patronalekin eta sindikatuarekin negoziatu dezala gainontzeko lan baldintzak (batez ere lanaldia) irakaskuntza publikoko baldintzekin parekatzeko hitzarmena. Hitzarmena 2008-2009 ikasturtetik aurrera aplikatuko litzateke.
- 4.- IRALEko programan beharrezko aldaketak egin ditzala langile horiek hizkuntza gaitasuna lortu ahal izateko liberatzeko eskubidea izan dezaten, irakasleek dituzten baldintza berberetan.
- 5.- Hezkuntza Sailak langile hauentzako berariazko prestakuntza plana egin eta eskaini dezala, gai profesionalak nahiz orokorrak (bizikidetzak, kulturartekotasuna...) barne hartuz.

Dokumentu hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari lehenbailehen igortzeko eskatzen dugu, arren, eskakizun hauek azter ditzan.

Bilbon, 2008ko martxoaren 11n



ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C

BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)

GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealde)

NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)

01001 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04

☎ **944 10 02 98**

☎ 943 46 60 00

☎ 948 21 23 55

☎ 945 14 43 02

☎ **944 10 13 60**

☎ 943 45 36 27

☎ 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org

bizkaia@stee-eilas.org

gipuzkoa@stee-eilas.org

navarroa@stee-eilas.org